

Etxeko eta auzoko konposta



ELKARRIZKETA TRINITARIOETAKO SUHILTZAILEEI. Larrialdiak, suteak, sorospena eta orain baita konposta ere.

Iruñeko Trinitarioen suhiltzaile-parkera joan gara. Han, kamioi gorrien eta askotariko ekipamenduen artean, Carlos Díestek egin digu harrera, suhiltzaileen bozeramaile moduan.



kontu horren gaineko kontzientzia handi samarra izan dugulako. Baina orain pauso bat gehiago egin nahi izan dugu aurrera. Uste dugu konposta eginez sortzen ditugun hondakinen jakitunago izatea lortuko dugula eta zuzenean hartuko dugula haien gaineko ardura. Gainera, gai organiko horiek guztiak tratamendu-plantara garraiatu behar izatea ekidingo dugu. Eta, bestalde, konposta izango dugu, landareen lurra hobetzeko erabiliko duguna.



Zer motatako hondakin organikoak sortzen dira suhiltzaile-parkean? Etxebizitza arrunt batean sortzen direnen aldean, oso desberdinak dira?

Azken batean, parkean sortzen ditugun hondakinak etxean sortzen ditugunen oso antzekoak dira. Otorduetarako, gu geu antolatzen gara; etxean bezala, egunero prestatzen dugu janaria eta zereginak denon artean egiten ditugu.

Kantitate handiagoak sortzen dituzuela izan liteke desberdintasuna?

Bai, hala da. Egunero zazpi bat suhiltzaile ibiltzen gara hemen, baina beste langile batzuk ere izaten dira. Hau da, familia handi bat bagina bezala da. Hortaz, nahiz eta dena ongi aprobetxatzen ahalegintzen garen, tarteko familia batek sortzen dituen janari-hondarrak baino gehiago sortzen ditugu azkenean.

Duela gutxi konposta egiten hasi zarete. Ezagutzen al zenuten Mankomunitateak etxean konposta egiteko duen sistema?

Bada konpost-ontzia herrian izan duenik, eta nik neuk auzoko konpostajerako programan parte hartu dut. Baina gainerakoentzat berria da, ziur asko hartaz hitz egiten entzun badute ere.

Lehen, gai organikoetarako edukiontzia erabiltzen zenuten. Zerk bultzatu zaituzte Mankomunitatearen konpostaje-programan parte hartzera?

Bai, egia da orain arte gai organikoak edukiontzi marroira bota ditugula, hondakinak gaika bereizteko

EDUKIA

Elkarrizketa Trinitarioetako suhiltzaileei
Mintzaldia eta konpost-ontziak banatzea
Konposta ez da etxebizitzetan bakarrik egiten
Konpost-ateratzeak
Berri laburrak, kontaktua, intereseko loturak

1. or.
2. or.
3. or.
3. or.
4. or.





Carlos Diestek utzitako argazkia

Konposta egiteko prozesua ongi joan dadin, konpost-ontzia lurraren gainean jarri behar da, "arnasa hartzeko aukera" izan dezan eta jariakinak xurga daitezen. Kasu honetan, konpost-ontzia terraza batean jarri denez (ez zegoen beste aukerarik), suhiltzaileek lurrezko ohe on bat prestatu dute eta haren gainean jarri dute konpost-ontzia.

Prestakuntza pitin bat jaso duzuen honetan, laburtu al ditzakezu konposta egiteko pausoak?

Ikasi dugunaren arabera, material freskoak eta material lehorrak eratzten dute konposta. Material freskoa orain arte gai organikoetarako edukiontzira botatzen genuena da. Material lehorra edo marroia, berriz, hosto eta



landare-hondakin lehor eta birrinduak dira, konpost-ontzira botatzen ditugun hondakinak estaltzeko eta zati freskoarekin nahasteko balio dutenak. Eta hori guztia nahasi egin behar da noizean behin, aireztagailua erabilita, airea izateko, hau da, oxigenoa, eta dena ongi nahastuta gelditzeko. Gure kasuan, eguzkiak betebetean jotzen duen toki batean jarri dugu konpost-ontzia, eta, hortaz, arretaz zaindu egin beharko dugu, gehiegi lehortzen bada, ureztatu egin beharko baitugu.

Hori guztia ikasita, hasterik ez zaizue gelditzen, eta denborarekin konposta izango duzue. Baina zertarako erabil daiteke konposta suhiltzaile-parke batean?

Konposta oso ongi etorriko zaigu hemen dugun baratze txiki baterako. Konpost-ontzitik ateratzen dugunarekin baratze-mailetako lurraren kalitatea hobetzea espero dugu. Dena den, hemengo zenbaitek baratzea dute edo, bestela, beren senitartekoek, eta gogoz hartuko dute konposta. Uste dut ez dela ezer geldituko sobera.

Gainerako herritarrei interesgarria irudituko zaie suhiltzaileek ere konposta egiten dutela ikustea. Elkarrizketa irakurtzen dutenei mezu bat bidaltzera animatzen zarete?

Gure aldetik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu sortzen ditugun hondakinekin kontsekuente izan behar dugula ulertzea. Ongi bereizi behar dugu frakzio bakoitza eta hondakin-kantitatea murriztu behar dugu, eta hori lortzeko modu bat bertan konposta egitea da. Nahiz eta gu duela gutxi hasi garen, konpostajeri buruzko informazioa lortzera animatu nahi ditugu gainerakoak. Eta interesa badute, kontsulta dezatela zein modutan has daitezkeen parte hartzen.

ETA SUHILTZAILEEZ GAIN, BESTE BATZUEK ERE BAT EGIN DUTE KONPOSTAJEAREKIN

Ekainaren amaieran azken mintzaldia eta konpost-ontzien banaketa egin dugu

Beste behin ere, Mankomunitateak Arazuriko HUAn dituen instalazioetan egin dira prestakuntza-saioak eta banatu dira konpost-ontziak.

Prestakuntzan, konposta egiteko jarraibideak eta gakoak ematen dira. Praktikan jartzeak konpostaren gainerako sekretuak erakutsiko ditu.



3. or. 4tik

KONPOSTA EGITEA EZ DA ETXEBIZITZA PARTIKULARREN KONTUA BAKARRIK, MERKATARITZAK ERE PARTE HARTZEN BAITU

Zalantzarik gabe, parte-hartzaile gehienak familiak eta etxebizitza partikularrak dira (%99 inguru), baina ezin da aipatu gabe utzi gainerako %1 horren merezimendua; hain zuzen, sistema honen alde egin duten elkarrekin, ostalaritza eta merkataritza-industriako jarduerak dira. Guztira, gutxi gorabehera, hondakin organikoak 40 ekoizle berezi dira.

%32



Ostalaritza: landetxeak, hotelak eta kanpinak

%18



Egoitzak, zentroak eta komentuak

%16



Jatetxeak eta janarizerbitzuak

%16



Dendak

%18



Beste batzuk



baina, hala eta guztiz ere, ez zen ezta poltsa bakar bat ere gelditu sobera.

SANDUZELAI-GELTOKIA

Sanduzelai auzoan ia hiruhileko guztietan aritzen dira konposta ateratzen. Nahiz eta zirimiriak saioa pitin bat ilundu eta itsustu zuen, lau emakume eta gizon bat joan ziren eta ez zen eragozpenik izan. Hartara, maiatzaren 9an, 400 litro inguru atera zituzten. Konpostontzi bat hustu gabe utzi zuten eta hurrengo saioan aterako dute bertako konposta ziur asko.



BARATZEAN ARITZEKO SASOIA DA, KONPOSTA EGITEKO SASOIA DA

Gune desberdinetan ateratzen joan den konpostaz gozatzen ari dira baratze eta loreontzietan.

AIZAROTZ

Apirilean, herri honetan 400 bat litro konpost ondu eta ongi egindako atera dira.

ANTSOAIN—Emakumeen baratzea

Saioa apirilaren 6an egin zen, eta benetako talde moduan lan egin zuten 15 kide elkartu ziren. Emaizta gisa, 1.800 litro konpost lortu zituzten: kantitate handia,

SANTA ANA PLAZA—ALDE ZAHARRA

Alde Zaharraren bihotzean kokatuta, Santa Ana plazako guneak oso erritmo ona hartu du. Ekainaren 6an, zehazki, guneko bigarren konpost-ateratzea egin zuten erabiltzaileek, eta baratzerako 400 litro material lortu zituzten.

SANDUZELAI-IKASTETXEA

Ziur asko ekainean zehar, aurreikusita dago konpost-kantitate handia ateratzea gune honetan: kalitate handiko 2.000 litro inguru.



Gai Organikoak
Materia Orgánica



948 42 32 42
www.mcp.es



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

2. or. 4tik

ZENBAIT BERRI LABUR

EUSKADIN AUZOKO KONPOSTAJEA EGITEKO INSTALAZIOAK ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DUTE

“63/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena” da, hain zuzen ere.



Auzoko konpostajerako gunea, Hernanin

Imagen: <http://www.compostaenred.org/proyectos/lornadasPontevedra2016/presentaciones/Hernani.pdf>

Onartu duten dekretu horrek baldintza batzuk jasotzen ditu, auzoko konpostajea egin ahal izateko. Alderdi hauen gaineko betebeharrak ezarri dira, hain zuzen: auzoko konpostajerako erabil daitezkeen hondakinak, **kokapena**, instalazioen ezaugarriak, prozesuaren **kontrolak** eta emaitza moduan lortzen den konpostaren **kalitatea**. Gainera, gune bakoitzak langile **teknikariak** eduki behar izatea hartzen du barne, eta, era berean, sortutako **konpostaren** xedea mugatzen du.

Legeria berri hau askotariko iritziak ari da eragiten auzoko konpostajearen arduradunen artean. Badirudi gatazka dagoela dekretuan planteatutako kudeaketa-baldintzen eta egun auzoko konpostajea egitean gauzatu ari diren benetako jardunbideen artean.

“HIRI BARATZEA”, HAMAICA TELEBISTAKO PROGRAMA, ANTSOAINGO KONPOSTAJE-GUNEAN IZAN ZEN



Programak baratzezaintzako gaiak hartzen ditu, baina saio honetan, gainera, gaia zabaldu eta konpostajea barnean sartu dute. Programa ikus-terera animatzen bazarete, Antsoaingo konpostaje-gunean egindako elkarrizketa bat ikusiko duzue. Bertan, teknikariak Iruñerriko Mankomunitatearen konpostaje-programa azaltzen du. Saioa maiatzaren 10ean eman zuten, baina telebistaren webgunean ikus daiteke. Hain zuzen, lotura honen bidez sar zaitezke:

<https://hamaika.eus/saioa/hiri-baratzea>



KALTEAK AUZOKO KONPOSTAJERAKO INSTALAZIOETAN

Zoritxarrez, auzoko konpostajerako guneeetan gorabehera eta kalte txikiak izaten jarraitzen dugu.

Gorabehera ohikoena da konpost-ontzietako plakei eusten dieten hagaxkak lapurtzea, eta horrek ekartzen du konpost-ontziak desmuntatzea eta haietako eduki guztia atera eta zabaltzea.

Gainera, konpost-ontzien inguruko hesiren bat eta konpost-ontzietako beste zati batzuk ere hautsi dituzte.



HARREMANETAN JARTZEKO

IM: 948 423 242 | mcp@mcp.es

Beatriz Yaben: 948 423 836 | byaben@mcp.es

Irantzu García: 948 591 119 | igarcia@sistemasmedioambientales.com

INTERESEKO LOTURAK

www.mcp.es

www.compostaenred.org

www.mapama.gob.es

NOLA EMAN BEHAR DA IZENA KONPOSTAJEAN?

IMren webgunearen bidez edo atal honetan kontakturako dauden bitartekoen bidez.

PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIAK (2019/03/07)

Etxeko konpostajean 3.402

Auzoko konpostajean 857



4. or. 4tik